

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

**Karrerako funtzionario eta lan kontratadun langile finko izendatzea, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi prozesuan, hautaketa prozesuak amaitu ondoren**

Bat etorritz, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen salbuespenezko deialdiaren esparruan, Aguraindo Udalak onetsitako eta 2022ko abenduaren 26ko ALHAOn argitaratutako (148 zk.) oinarri orokorrekin. Oinarri horiek hutsen zuzenketa bat izan zuten 2023ko martxoaren 15eko ALHAOn (31 zk.) eta deialdiaren laburpen bat argitara eman zen 2023ko maiatzaren 11ko BOEn (112 zk.).

Lanpostu hauek betetzeko hautaketa prozesua amaitu da:

- 1. Artxiboko administraria.
- 2. Administraria.
- 3. Kirol koordinatzailea.
- 4. Hezitzailea.
- 5. Informatikako arduraduna.
- 6. Musika irakaslea (akordeoia).
- 7. Musika irakaslea (flauta).
- 8. Musika irakaslea (gitarra klasikoa).
- 9. Musika irakaslea (gitarra eta baxu elektrikoak).
- 10. Musika irakaslea (musika hizkuntza, kantua eta kantu korala).
- 11. Musika irakaslea (1 maila).
- 12. Musika irakaslea (perkusioa).
- 13. Musika irakaslea (pianoa).
- 14. Musika irakaslea (tronboia eta metal baxuak).
- 15. Musika irakaslea (tronpeta).
- 16. Musika irakaslea (txistua).
- 17. Musika irakaslea (biolina eta biola).
- 18. Behargina/espezialista.
- 19. Peoia/behargina.
- 20. Administrazioko teknikaria.

IKUSITA Alkatetzaren 2024ko abenduaren 19ko 159/2024 Ebazpena, 2024ko abenduaren 26ko 165/2024 Ebazpena, 2024ko abenduaren 27ko 167/2024 Ebazpena eta 2024ko abenduaren 30eko 168/2024 Ebazpena, praktiketako funtzionarioen eta probaldian dauden lan kontratadun langile finkoen izendapena egiten dituztenak.

IKUSITA Lehendakartzaren 2024ko abenduaren 30eko 168/2024 Dekretua, Aguraingo Udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratutako praktikaldiaren instrukzioa onesten duena, bai eta instrukzio horren 1. aldaketa (Lehendakartzaren 2025eko otsailaren 11ko 21/2025 Dekretuaren bidez onetsi zen) ere.

IKUSITA praktikaldiko/probaldiko tutoreak honako langile hauen alde egindako txostenak:

IKUSITA espedientea.

Alkateak honako hauek ebatzi ditu:

LEHENENGOA. Honako pertsona hauek karrerako funtzionario izendatzea:

PLAZA	TALDEA ETA AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA	IZENDATUTAKO PERTSONA
Behargina/espezialista	C2	Administrazio Berezia, lanbideetako langileak	Asier Mondejar Madina

BIGARRENA. Honako pertsona hauek langile lan kontratudun izendatzea:

PLAZA	TALDEA ETA AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA	IZENDATUTAKO PERTSONA
Artxiboko administraria.	C1	Administrazio Orokorra	M <sup>o</sup> Estibalitz Iturrospe Lopez de Heredia
Kirol koordinatzailea	C1	Administrazio Orokorra	Eduardo Arizti Compañon
Hezitzailea	A2	Administrazio Berezia	Helena Albisu Landa
Informatikako arduraduna	C1	Administrazio Orokorra	Marisa Centol Villar
Musika irakaslea (akordeoia)	A2	Administrazio Berezia	Fernando Rivas Leonardo
Musika irakaslea (flauta)	A2	Administrazio Berezia	Usue Zapata Gonzalez
Musika irakaslea (musika hizkuntza eta kantua)	A2	Administrazio Berezia	Raquel Guridi Goñi
Musika irakaslea (1. maila)	A2	Administrazio Berezia	Iker Sanz Diez
Musika irakaslea (perkusioa)	A2	Administrazio Berezia	Gorka Sz. De Ibarra Mtz. De Contrasta
Musika irakaslea (pianoa)	A2	Administrazio Berezia	Miren Arantzazu Saiz Marculeta
Musika irakaslea (tronpeteta)	A2	Administrazio Berezia	Ricardo Navas Varga
Musika irakaslea (txistua)	A2	Administrazio Berezia	Iker Alvarez Gonzalez
Musika irakaslea (gitarra elektrikoa)	A2	Administrazio Berezia	Ibon Diaz Martinez de Lafuente
Peoia/behargina	C2	Administrazio Berezia, lanbideetako langileak	Raúl Santos Garcia
Administrazio teknikaria	A2	Administrazio Orokorra	Inmaculada Campo Orbiso
Administraria	C1	Administrazio Orokorra	Juan Luis Rz. De Aretxabaleta San Pedro

HIRUGARRENA. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta web orrian eta udalaren ediktu taulan argitaratzea.

LAUGARRENA. Ebazpen hau erakundearen ediktu liburuan argitaratzea.

BOSGARRENA. Ebazpen hau udalbatzari jakinaraztea, egiten duen hurrengo bilkuran.

Agurain, 2025eko otsailaren 17a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR